

# B

BARREN

## “Txikitako ilusioa da profesionala izatea”

Iban Gonzalez, txirrindularia



# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

### ORDUTEGIA

**10:00**etatik-**12:30**era

**15:00**etatik-**20:30**era

**Ego Gain, 4 behea**

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

## Gora gu ta gutarrak!

“Gu ta gutarrak” diska ari naiz entzuten, gogoe-ta egin eta boligrafoa dantzatzeko dudaren bitartean. Bi omen dira gizakiok gure buruari beti egiten dizkiogun galderak: zenbat irabazten duen aldameneko kabroiak eta zer pentsatzen duten besteek gutaz. Bada hirugarren galdera bat ere, politikomanoen artean ohikoa dena: ze joera ideologiko duten gure ingurukoek. Galdera egin orduko datozkigu erantzunak edo ustezko erantzunak burura: hau ziur eskuinekoa duala batek, zentrista traza hartzen zioat nik honi besteak, agian ez-kertiarra izango duk hirugarrenak. Konturatu orduko, post-it ibiltarien antzera gabiltza, etiketaz josita. Zergatik eta zertarako katalogatu gure ingurukoak? Abestiak ondo dioen moduan, “ez daukagu guran gutar bakar bat”: langile eta alfer, sozialista eta kapitalista, solidario eta norberekoi, ekologista eta kontsumista, laiko eta espiritual, heldu eta ume...

“Izan ezin dugunaren guraso eta garenaren umezurtz gara akaso”. Baita itxurakeriaren eta gizartearen ondo ikusitako jarreraren morroi ere. Sigle, ideiei baino garrantzi handiagoa ematen diegu maiz. Autonomia ideologiko falta eta alderdi poli-

tikoekiko dependentzia, handiegiak dira askotan.

Jon Sarasuak Andoni Egañarekin batera idatzitako *Zozoak beleari* liburuan proposatzen digun ariketa bat datorkit burura: gure aldamenekoaren larruan bidaiatzera animatzen gaitu bertsolari aretxabaletarak. Bestearen larruan sartu, sentsazio berriak esperimendu, eroso edo deseroso sentitu, gozatu, sufritu eta bestea ulertzen saiatu. Gure ideiak libreki azaldu eta besteenak baloratu. Kritika eta autokritika egin. Gure gutar ofiziala, besteen gutarren artean, eta besteen gutar ofiziala, gure gutarren artean aurkitu. Orduan bakarrik konturatuko gara batzen gaituena banatzen gaituena baino askoz gehiago dela. Horretarako ezinbestekoa da hitzegitea. Asko hitzegitea.

Abel Arriaga



“Konturatu orduko, post-it ibiltarien antzera gabiltza, etiketaz josita.  
Zergatik eta zertarako katalogatu gure ingurukoak?”



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)


**SANTA AGEDA**  
ETA  
**INAUTERIETAKO**  
ERRETRATUAK

**MEDIATEKAN!**

*Egin klik  
eta  
ikusiko duzu!*

 **ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR. ELGORTA

“Odola  
ematera  
animatu  
nahi dugu  
jendea”



# JESUS CASTAÑARES

ODOL EMAILEEN ELKARTEKO DELEGATUA

2003. urtetik nabarmen jaitsi dira odol emateak Elgoibarren. Hori dela-eta, Odol Emaileen Elkarteak herritarrei ohartarazi nahi die egoera horrek kezka eta ezinegona besterik ez duela eragiten. Ospitaleetan ere sendatzeko erabiltzen dute, eta gero eta eskaera gehiago dago. Urrun geratu dira 1993an jasotako 835 odol poteak. Iaz 697 ontzi jaso zituzten, 2006an baino 69 gutxiago. Baina joera hori aldatzeko aukera handia dago. Urte guztian zehar hamaazpi deialdi daude odola emateko. Gaur, barixakua, 18:30ak eta 20:30ak bitartean, boluntarioak elkartetik pasa daitezke, aurrez abisatu ez badute ere. Hurrengo hitzordua otsailaren 29an izango da, beti ordu berean.

### **Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartea ere kezkatuta dago datuok ikusita?**

Ez digute ezer adierazi. Gu jabetu gara azken urteotan jaisten ari direla. Iaz 69 pote gutxiago jaso genituen. Jakinaren gainean laga nahi genuen jendea eta, bide batez, odola ematera animatu.

### **Baina 2003tik jaisten ari dira. Orduan ere egin zen sentsibilizazio-kanpainaren bat?**

2003an izan zen jaitsiera altuena. Orduan ere egingo zen zerbit.

### **Egoera larria da?**

Kezkatzeko modukoa da. Gainera, 65 urte dituztenak erretiratu egin dira eta gazte gutxi ematen dute izena, eta noizbehinka.

### **Eta izena ematen duten askok gero ez dute jarraitzen odola ematen?**

Hori da. Izena eman, fitxa egin eta odola emateko deialdi batean, deitutakoan laurdena inguru etortzen da. Hamazazpi deialdi daude urtean.

### **Karneta eduki eta etortzen ez diren asko daude?**

Karneta duen jende asko dago, baina horietatik erdia etortzen da.

### **Aurreko deialdira zenbat etorri ziren?**

36 etorri ziren.

### **65 urte egin dituzten horien artean, zenbat urtez eman dute odola?**

Guk ez dugu urteen arabera kontatzen. Guk odola zenbat bider eman duten kontatzen dugu.

**“Egoera kezkatzeko modukoa da. Gainera gazte gutxi ematen dute izena”**

### **Eta zenbat aldiz etorri dira?**

50 aldiz emandakoak badaude. 60 ere bai. Nik neuk eman nuen 60 bider. Baina erretiratuta nago.

### **Zenbat jubilatuta dira azken aldian?**

Hamar bat azken urtean. Medikuek erabakitzen du noiz lagatzen dioten odola emateari.

### **Zer baldintza behar da odol emate izateko?**

18 eta 65 urte bitarte izatea eta gutxienez

50 kilo pisatzea. Eta ondo egotea. Hemen analisisia egin eta tentsioa hartzen dute. Odola atzaparretatik ateratzen dute ikusteko anemiarik badagoen. Gero Donostira eramaten dute ateratako odola eta han aztertzen dute. Zerbait izanez gero, eurak jartzen dira harremanetan odol emaillearekin gutun baten bidez. Lehen hona ekartzen zuten. Sekretua eta pribatua da. Guk ez dugu esku hartzen.

### **Zein hilabetetan etortzen da jende gutxien?**

Udan gutxiago, gehien falta denean.

### **Ezbehar gehiago egoten dira...**

Bai, eta odol-emate gehiago behar dira. Operazioetan ere, euren odol poltsatxoekin sartzen dira. Lehen ez zen hainbeste odol behar, izan ere sendatzeko ere erabiltzen baita odola.

### **Zein da hilabete onena?**

Uda bitartekoa. Batzuetan udazkenean ere ondo hasten gara.

### **Hemen odola ateratzen duten momentutik, nora joaten da?**

Gipuzkoko Odol Emaileen Elkarteko medikuak etortzen dira erizain batekin odola ateratzera eta poteak eramaten dituzte. Handik banatzen dituzte. Baina lehen baino pote gutxiago jasotzen dituzte.

### **Zergatik dator jende gutxiago?**

Arazo asko daude. Jende gazteak kanpogan ere egiten du lan. Herrialde exotikoetara joanez gero ere, urtebete egon behar du odola eman gabe. Hagina ateratzeak ere baditu bere oztupoak. Batzuk etorri izan dira hagina atera diotela esanez, eta medikuak erabakitzen du odola atera edo ez.

### **Jende asko mareatu egiten da odola atera behar diotela pentsatzearekin bakarrik...**

Halaxe da. Mundu guztiak ez du balio odola emateko. Hori borodantzekoa da. Borodate osoz datorren bat mareatzen bada, ezin zaio ezer ere esan.

### **Kontzientzia gutxi dago?**

Jende askok uste du ez dela odolirik falta, eta behar badu ospitalean sartuko diotela. Askok ez dute pentsatzen odola nondik datorren, eta ez dute kontuan hartzen baten batek eman duela borodate onenarekin. Baina elkartera jende serioa etortzen da. Gizonezkoek lau bider eman dezakete urtean eta emakumezkoek eta gazteek hiru bider. Karneta eduki eta azken lau edo bost urtetan etorri ez direnak ere badaude.

### **Gaur odola emateko deialdia dago. Abisatu gabe ere etorri liteke?**

Bai. Esan izan digute gutuna jaso aurretik ez zaiela burutik pasa ere egin berriro joatea. Odol emaleen karneteen ikusten badute azken alditik hiru edo lau hilabete pasa direla, beldurrik gabe joan daitezke odola ematera.

**“Odol emale karneta daukan jende asko dago baina horietatik erdia bakarrik dator”**

### **Zein ordutan izaten dira?**

Sei t'erdietatik zortzi t'erdietara. Beti ordu berean.

### **Zer pasatu zen 1993. urtean hainbeste odol emate egoteko?**

835 pote jaso ziren. Ez dakigu zergatik. Odola ematea borondantzekoa da. Boluntario bati gehienez lau bider abisatzen zaio eta etortzen ez bada eta azalpenak ematen ez baditu, ez diogu berriro deitzen. Eskertuko genioke jarraitu nahi ez badu, abisatzea. Beste batzuk baja ematen dute kanpora joan direlako.

### **Etorri izan da Udaleko norbait odola ematera?**

Guk dakigula, ez. IMHko ikasleak ere etortzen dira.

### **Zerbait janda joan behar da?**

Bai, orain bai, lehen ez zen horrela. Hobe zerbait janda etortzen badira.

### **Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartetik zerbait berezia eskatu dizute?**

Ez, guk odola bidaltzen badiegu, eurek konforme daude. Zenbat eta gehiago jaso, orduan eta hobeto. Ez dakigu Gipuzkoako beste herrietan zer pasatzen den, baina uste genuen zerbait egin beharra zegoela. Odola falta duenean jabetzen da jendea odola eman behar dela.

### **Elgoibarren zein odol dago gehien?**

O positibo eta A positibo. Odol mota guztiak dira preziatuak.

Urtarrilean langabeziak gora egin du eta burtsak galera handiak izan ditu

## Azken boladan bizi dugun egoera ekonomikoak kezkatzen zaitu?



**Nati Agirregomezkorta**

**40 urte, etxekoandrea**

Bai, eta seme-alabak daukazunean, gehiago. Aurrerantzean latzagoa izan daiteke. Lanpostu fijoak baduzu, datorren astean, beharbada, ez du balio.



**Jose Manuel Aranberri**

**61 urte, jubilatua**

Hori ez da normala. Dena ondo doala esaten dute baina gero gertatzen dena gertatzen da. Amerikarrek doministiku egiten badute, guk jai dugu.



**Sonia Arteaga**

**38 urte, sukaldaria**

Ez dut asko ulertzen, baina arduratzekoa da lanik ez egotea. Egoerak hobera egitea espero dut. Bestela, lan gabe, pentsa! Gure artean paperak dituztenek erre-zago topatzen dute lana.



**Ibone Iriando**

**46 urte, langilea**

Kezkatzekoa da, bai. Estatu Batuetan eta Alemanian gertatzen denarekin baldintzatuta gaude hemen. Egoerak hobera egingo duela espero dut, denon onerako.

**10**  
eko  
**TXIKIAN**



**NAIARA MARTIN**

*Gazte informatzailea*

### **1. Zer falta zaio herriari? Eta zer dago soberan?**

Natur gune gehiago eta, soberan, zapatueta sortzen den giro txarra.

### **2. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?**

Merkadilloa plazara eramango nuke.

### **3. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?**

Aisialdiari dagokionez, gauza asko daude, baina jende asko ez da mugitzen. Agian guk huts egiten dugu, ez dakigulako nola erakarri jendea, baina gauza asko egin daitezke Elgoibarren. Egia esan, jendeak ez du beti erantzuten.

### **4. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira gonbidatzeko.**

Zapatu gaua ez. Txiki Egunera gonbidatuko nuke.

### **5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?**

Bai, instalazioak badaude, gero kontua da jendeak asko eskatzen duen edo ez. Nik ez dut kirolik egiten.

### **6. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzera?**

Kultur eskaintza ona da. Antzezlan asko daude; mozorro lehiaketa ere antolatzen dugu, baina jendea ez da animatzen. Ez dakit zergatik, agian lotsa kontua da. Gu saiatzen gara.

### **7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?**

Jaietarako egin nahi nuen aurten aboradatzea Deba ibaian. Ez zait axola bertan sartzea eta bainatzea, baina jendea, dirudienez, bai. Nazka ematen omen dio.

### **8. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?**

Euskaldunagoa izan liteke. Euskaldunak badaude, baina euskaraz hitz egiten edo ez duten beste kontu bat da.

### **9. Telebistan askotan atera da gure herria, ezta?**

Askotan agian ez da atera, baina gehienetan zerbait negatiboa kontatzeko izan da: politika gaietan, edo zapatuko giroa dela-eta.

### **10. Elgoibar nolakoa den galdetu dizu kanpotar batek.**

Bizi asko daukan herria da, beti dago jendea kalean, abuztuan izan ezik. Ume pila bat egoten da kalean. Kafea edo pote batzuk hartzeko oso herri ona da. Bizitzeko leku lasaia da. Superelgoibartarra sentitzen naiz.



**Txankakuako autobus geltokitik gora doazen eskilaretan argi gutxi dago:** “Santa Klara auzoan egiten dut lan eta egunero bi edo hiru buelta egin behar izaten ditut bide horretatik. Goiz iluntzen duenez, etxera joaten naizenerako gaua izaten da. Linterna erosi behar izan dut, Txankakuako autobus geltokira jaisteko eskilaretan ez dagoelako argi nahikorik. Farola bat izorratuta dago abendu hasieratik. Udaletxera joan naiz pare bat aldiz eta konponduko dutela esan didaten arren, ez dute ezer egiten. Muturrez aurrera erori arte itxaron behar dute bonbila aldatzeko? Aizkorri kalerako igogailua egiten dutenean ez naiz bide horretatik joango, baina proiektu hori ere atzeratuta doa, beraz, lehen bailehen konpontzeko eskatu nahi nuke”.



**Herriko kaleak txakur kakaz beteta egoten dira, dena zikin zikin eginda lagatzen dute:** “Txakur jabe askok ez daukate gainontzeko herritarrekiko errespeturik. Argi dago txakurrek kaka egin behar dutela, baina jabeek garbitu egin behar dute. Herriko bazterrak kakaz beteta egoten dira, zikin-zikin eginda. Nire ustez, gainera, ezin dira txakurrak edozein lekutara eraman kaka egitera, kalean adibidez, ez lukete laga behar, badaude berdeguneak eta nire ustez txakunagoa da. Eta hori gutxi bultz, txakur kaka bat zapaldu eta erori egin nintzen. Sekulako kolpea hartu nuen eta bizkarreko mina kendu ezinda nabil ordutik. Dagokionari eskatu nahi diot kaleak garbitzeko eta isunak jarri behar badira, jartzeko. Txakurrak etxean eduki nahi dituen arduratu dadila euren kakak garbitzeaz”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12

## ESKERTZA



*Jose Maria  
 Barrenetxea Arakistain*

2008ko otsailaren 1ean hil zen 80 urte zituela

*Gure ondotik  
 joan zara  
 baina betiko  
 izango zaitugu  
 gure bihotzetan*

*Jose Maria Barrenetxea Arakistainen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Ezin gara denera iritsi

Ez zen kuriosoa esnatu otsailaren 4a; zerua laino beltzez margotuta zegoen eta euri-zaparradak bata bestearen atzetik jausten ziren. Baina, aurren ere, eguzkiak ez zigen huts egin eta, eguerditik aurrera, berotasun gozoa bidali zigen.

Astelehen buruzurrian tokatu arren, 22-23 lagun elkartu ginen Plaza Handian. Neskak eta mutilak; gazteak eta ez hain gazteak; denok ere, urteroko legean, Santa Agedaren omenez kantatu eta eskean irteko gogoarekin.

Bi taldetan banatu ondoren, furgonetan sartu eta baserrietako bideak hartu genituen, Euskadi Irratikoak lagun genituela. Zazpi ordu baino gehiago eman genituen kantuan, baina guk nahi baino baserri gutxiago koplatu genuen. Baserriren batean azalpenak ere eskatu zizkiguten aurreko urteetan ez azaltzeagatik. Nahiko genuke, baina ezin gara baserri guztietara iritsi. Oker ez bagaude, Elgoibarren 207 baserri inguru dauka, eta ezinezkoa da denen atarrietara ailegatzea. Hala ere, gai honek zer pentsatua eman digu eta zerbait egiten ahalginduko gara.

Gaueko hamarrak ziren San Migeleko soziedadera iritsi ginenerako. Han zeuden gure zain Agustin Irusta eta Balentin Egia amantal zuriak jantzi eta gure goseak asetzeko prest (eskerrik asko Kalamua elkartekoei afaria doan emateagatik). Esther Mugertza falta zen, baina datorren urtean berriz ere egongo da gure artean.

Santa Ageda bezpera ez dute gorrit markatzen Euskal Herriko egutegietan, baina guretzat egun berezia izaten da.

**Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea** ☺

### Eskertza oharra

Odol Emaileen Elkarteak laguntzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie, euren laguntzaren bidez zeregin humanitario honetara aurrera egin dezakeelako. Aipamen berezia merezi dute odol emaile guztiek, bazkide babesleek, Udalak, Correosko langileek, Ibar Txiki Ardoek, Julio Buenok, Eroskik, Aitzolako Urek, Txankakuak, Euskadiko Kutzak eta berriemaileek.

2007an Elgoibarko delegazioak 697 odol ontzi bidali zituen Donostiako odol bankura, 2006an baino 69 gutxiago; beraz, odol-emaile guztiei dei egiten diegu, eta gehienbat gazteei, odola ematen lagun dezaten.

**Elgoibarko Odol Emaileen Elkartea** ☺

### IMHko aparkalekua dela eta

Aurreko asteko BARREn IMHko aparkalekua txiki geratu dela eta, erantzuna ematea nahi izango genuke:

IMH duela 17 urte sortu zen eta orduan behar ziren autoen beharren aurreikuspenak 17 urte ondoren nabarmen biderkatu dira. Badakigu arazoa dugula eta saiatzen gara gogorarazten bai ikasle eta bai irakasleei IMHko aparkalekuaz gain Mintxetako aparkalekua ere badutela autoa uzteko, eta elgoibartarrak direnei oinez etortzeko.

Askoren erantzuna izaten da Mintxetara igotzeko aldapa handia dagoela eta urruti dagoela. Kontua da jendea eraikinetik ahalik eta hurbiltzen aparkatzen saiatzen dela.

**IMHko Zuzendaritza** ☺

### Etxebizitza eskubidearen alde, independentzia aurrera

Gazteoi etxebizitza hitza entzuterakoan hau datorkigu burura: negozioa; eta eskubide urraketa. Hori da gaur egun sistema neoliberalak eta Espainiak eta Frantziak eta PNVk egiten dutena etxebizitzarekin, gutxi batzuen probetxurako eta mesederako negozioa, gazteoi prekarietatean bizitzera kondenatuz.

Etxebizitza beraien helburu politiko eta ekonomikoetarako erabiltzen dute. Eskubidea ukatzen digute, baina guk argi dugu zeintzuk diren erantzuleak: inbulariak, banketxeak, konstruktoreak, promotorak, espainiar eta frantziar Gobernuak, Udalak, PNV.

Ez dizuegu gure eskubideak zapaltzen gehiago utziko, espekulatzaileok! Gaur egun dugun marko juridiko eta politikoa gaituzteko dugu eta gure eskubideak bermatuko dituen Euskal Herria eraikiko dugu, azken finean. Entzun! Ez Euskal Herria eta ez euskal gazteria ez daude salgai! Horregatik etxebizitza eskubidea bermatuko dugun euskal estatu sozialista eraikitzearen bidean independentzia aldarrikatu eta beraren aldeko borroka egingo dugu.

**Elgoibarko Segi** ☺

# Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Maialen  
Olazabal

Ane, egunak jo-  
an eta egunak etorri noiz  
bukatuko zain. Orri zuri arteko

munduan boligrafo beltzek utzitako aztarnak ikasi eta ikasi. Mozorro artean ezkutatu eta letra guztiak ezabatuko nituzke. Margo zuria hartu eta idazten hasiko nintzateke, esan nahi dudana esan baina arrastorik utzi gabe. Baina orduan zertarako idatzi? Barrena hustu eta esan duzula pentsatzeko. Pentsatzeko bakarrik....

### “Zertarako idatzi? Barrena hustu eta esan duzula pentsatzeko. Pentsatzeko bakarrik”.

Baina zuk, Ane, badakizu gauzak ez direla zuri hutsean utzi behar. Bizitza arrosa zuri bat bezalakoa da, margotu ezean zuri geratzen da eta azkenean zimeldu. Eskuetan pintzela hartu eta norberak pintatu behar du bere arrosa. Hasieran kolorea aldatzeko aukera egoten da umel egoten baita. Denbora aurrera joan ahala gero eta lehorrago jarriko da. Orduan alperrik izango da kolorea aldatu nahi izatea, bere horretan jarraituko du. Sokatik zintzilik jarri eta bertirako oroitza huts bat baino ez da izango. Edo ez.

Argazkiak, abestiak, usainak, hitzak... gomutak dira. Guk margotu ditugu eta guk nahi izan dugu oroitza izan daitezen. Egin ezean ezer ez da historiaren tabernan idatzita geldituko. Momentuko beldurrak, izerdi hotza... baina sofritu ostean ongi ateratzen bada bukaerako goxotasun hori baino ez zaigu geratzen memoriaren kutxan.

Nik nahi dut eta zuk ere hala nahi izango duzulako, zozoa eta belea zurtasunean hil ez daitezen eman diezaiegun merezi duten kolorea. Zer diozu?



Ane  
Odria



Emango ez diegu ba, Maialen!

Mundu honetan daramatzagun 19 urteek ezer erakutsi badigute hori da, bizitzari kolorea ateratzen, koloreak nahasten, probatzen, aldatzen... Gogoan dut arrosaren kontu hori ere, nola orain dela lauzpabost urte esaten genion elkari arrosa bat genuela eskuartean eta hura margotu behar genuela, ostertzean zimeldu egingo zela eta. Hor ibiltzen ginen bateko eta beste, gaur han eta bihar hemen, beti arrosa koloretsu mantenduaz, diozun moduan, poliki-poliki oroitza bilakatu direnak gertarazten.

### “Bizi gaitzen erdi pozik edo, zergatik ez, pozik”.

Egun hauetan orri zuri artean zabilta ikasi eta ikasi eta badakit ez direla izandako garairik onenak, baina lasai, iritsiko da orriek batarik lekukoa emango dioten momentua ere, eta uste baino lehena, bata zuridun medikua izango da gure Maialen. Orduan, zu medikua eta ni auskalo zer garenean, orain Zarauzko kanpinean edo Lesakako San Ferminetan igarotako egunak gogoratzen ditugun moduan gogoratuko dugu BARRENen lagatako arrastoa ere, eta barre egingo dugu “akordatzeko BARRENian idatzi gendula...” esaten dugunean. Orain arteko argazki, abesti, usain, hitz... horiekin batera pilatutako oroitza bat gehiago izango da BARRENeko hau eta historiaren tabernan geratuko da idatzita. Horregatik, ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara eta bitartean gureari eutsiko diegu, Elortza eta Iturriagak esaten duten moduan, “bizitza da bakarra eta ez ditu bi bide baikik: triste bizi gintezke edo erdi pozik”. Bizi gaitzen ba erdi pozik, edo, zergatik ez, pozik.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## Altzolako Zelaia parkeko etxebizitza berrien obretan irregulartasun handiak daudela esan du Zubibai elkarteak

Taldeko kideak alderdi politikoekin bilduko dira ardurak eskatzeko

Urtebete inguru pasatu da Altzolako Zubibai Elkartearen sortu zenetik, eta etengabe ari dira euren auzoa hobetzeko lanetan. Udaleko arduradunekin bilerak egin dituzte, baina ez daude konforme Altzolan gertatzen denarekin. Orain Zelaia parkean egiten ari diren etxebizitzaren obrak salatu nahi dituzte. Euren esanetan, Ibai Haundi konstrukturak nahi duen guztia egin du, proiektua errespetatu gabe eta, gainera, Udalaren babesarekin. Zubibai Elkartekoak alderdi politikoekin jarriko dira harremanetan, ardurak eskatzeko.

### Irregulartasunak

Zubibai Elkartekoaren arabera, Zelaia parkeko etxebizitzaren proiektuan gas depositoa lur azpian jarriko zela azaltzen zen, baina gainean ipini dute, haur parke oso gertu, eta haur parkea ere “ez da inondik inora proiektuan azaltzen zena”. Bestalde, zakarrontzi eta txakur kaka biltzeko poltsarik ez dutela jarri eta proiektuan azaltzen ziren bederatzigarren jarlekuetatik bi bakarrik ipini dituztela esan dute. Zuhaitzak eta landareak ere ez di-



*Zelaiako gune pribatuaren argiztapen publikoa jartzeak haserrea eragin du.*

tuzte landatu eta etxebizitzaren obrek sortutako zikinkeria eta zabor guztia lur azpian ezkutatu dutela salatu dute. “Dudarik gabe, dirua aurreztu dute. Nork dauka gainontzeko dirua?”.

Hala ere, haserretan dituen azken ekintza gaueko argiztapena izan da. Abenduaren 14tik aurrera, hamahiru farola egoten dira gauero piztuta Zelaia

parkean. Antza denez, lapurrak ez sartzeko egoten dira argiak piztuta, lehen ere arazoak izan zituzten-eta. “Eremu hori pribatua da, inor ezin da sartu eta elgoibartar guztion artean ordaintzen ari gara argiztapen hori. Herritarren diruarekin ezin da horrelakorik egin”. Zubibai Elkarteko kideak lanean jarraituko dutela adierazi dute.


## Akei baserriko Mimi astoa Gipuzkoako ederrena izendatu dute



Akei baserriko Txomin Arriolaren astoek bost aldiz segidan irabazi dute Lazkao-Astotxo Eguneako lehiaketa. Lehenengo hiru urteetan Satur astoa izan zen politena eta azken bi urteetan Mimi.

Txomin Arriola elgoibartarra astozale amorratua da eta estimu handia die etxebere horiei. Orain dela zazpi urte hasi zen astoak hazten eta gaur egun ia hogeitauka Idotorbe-San Pedro bailaran dagoen Akei baserriko larreetan.

## Pertsonaia **Ainara Ladron**



Grande-Marlaska epailearen aurrean deklaratu beharko du Ainara Ladron elgoibartarrak. Joan zen urteko urtarrilean Hainka-Segi auziko epaiketa salatzeako ustez A-8 autopista mozteagatik deitu du epaileak eta datorren astelehenean, otsailaren 11n, joan beharko du Madrigo Auzitegi Nazionalera. Desordena publikoak eragitea egotzi zioten Ainara Ladroni eta beste lau laguni, elkarrekin kateatu eta ordu erdiz A-8 autopista mozteagatik. Azpeitiko epaitegiak zeraman kasua, baina Auzitegi Nazionalera iritsi da.

## Zenbakia **1.475**

Etxebizitza Taldeak zapatu goizean jardun zuen herriko kaleak kantu eta koplazaharrez janzen. Ohitura zaharrari eutsiz, Santa Agedaren omenez egin zuten oiez, eta bide batez, Caritas Elkartearantzako diru-bilketa egiteko aprobetxatu zuten. 1.475 euro bildu zituzten guztira eta antolatzaileak gustura azaldu dira, bai diru kopuruarekin, bai, beste behin ere, herrian izandako harrerarekin. Santa eskean parte hartu zuten guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiete.

## Txokoa **Madala ingurua**

Herriguneko merkataritzari bultzada emateko asmoz, oinezkoentzako egokituko du Udalak Madala ingurua. Herriko Antzoki ingurutik hasita, Madalako parkeraino berrituko dute ingurune hori. Besteak beste, oztopo arkitektonikoak kenduko dituzte eta Madalako parkea zabaldu. 1.132.000 euro gastatuko ditu Udalak berrikuntza hori egiteko. Hori guztia merkagune proiektuaren baitan egingo da. Herriko kanpora sortu diren merkataritza-gune handiek hiriguneko eta herrietako dendetan izan duten eraginari aurre egiteko sortu du Jaurlaritzak Merkagune egitasmoa. Saltoki handiekin lehiatzeko, haien itxura eman nahi die Eusko Jaurlaritzak hainbat herritako erdiguneri. Gipuzkoako 35 herritan aplikatuko da.



## **Motxaila Eguna ospatuko dute Mendaron**

“AHTrik ez” lemapean, Motxaila Eguna ospatuko dute bihar, otsailak 9, Mendaron. Eguerdiko 13:00etan hasita, hainbat ekintza izango dira: Aitzbeltz kobazuloan ipuin kontalaria, musika, poesia eta *cantaor* flamenko baten saioa izango da. Arratsaldeko lauretan bazkaria egingo dute gaztetxean. Interesatuak 10 euro ordaindu beharko dute eta 19:00etan bertso poteoa izango da Silveira, Uranga, Paia eta beste hainbat bertsoariarekin.

## **Merkatu Plazako zozketa**

Merkatu Plazako dendariak 60 euroko bi txeke banatu dituzte hilabete honetan. Lidia Iriarte eta Pilar Ortueta izan dira irabazleak. Zorionak! Saria erosketa txeketan jaso dute eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.

## **Baltasar elkartearen liburua**

Baltasar elkartea San Anton egunean bere 50 urteko historia azaltzen duen liburua kaleratu zuen, bakarrik bazkideentzako. Baina jende gehiagok liburua izan nahi duela-eta, ale gehiago argitaratuko dituztela iragarri dute. Interesatuok deitu 943 740 293 edo 943 742 021 zenbakietara.

## **Sagardotegia Gaztetxean**

Elgoibarko Gazte Asanbladak eta Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, sagardotegia izango da bihar, zapatua, gaztetxean. “Isolamendua apurtuz, preso bat *Gara* bat” ekimena bultzetzea izango da helburua. Gaueko 21:00etan izango da afaria. 10 euroren truke, sagardoa, tortilla, saiheskia eta postrea jateko aukera izango da. Tiketak Txuri-Beltz tabernan daude salgai eta aurrez erostea komeni da. Giroa alaitzeko trikitilari eta bertsoariak izango dira.

# AURREKONTUAK OPOSIZIORIK GABE

Aurtengo udal aurrekontuek inoiz baino babes zabalagoa lortu dute, plenoan botoa eman dezaketen alderdi guztien babesa jaso zuelako joan den urtarrilaren 31n. PPk, EB-Aralarrek eta PSOEek bat egin zuten EAJ eta EAren gobernu taldeak proposatutako udal aurrekontuekin, euren ekarpenak kontuan hartu zituen-eta. Hori dela eta, aurrerantzean elkarlanean jardungo dute. Guztira, 17 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak, iazkoa baino %6 handiagoa. Agintarien arabera, Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa oso saneatuta dago.


Oier Narbaiza

	Aurrekontua 3 zatitan banatzen da:	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala: 17.106.661 euro</li> <li>• San Lazaro Egoitza: 1.276.975 euro</li> <li>• Udal Kirol Patronatua: 1.010.519 euro</li> </ul>	
	<b>SARRERA AIPAGARRIENAK</b>		
	Zerga eta tasak		% 3,4ko igoera <i>(zaborrek %18,5eko igoera)</i>
	Udal finantzaketarako fondoa		%16,4ko igoera
	Aprobetxamendu urbanistikoak		1.820.000 <i>(Ubitartegain eta Urruzunoko etxeei dagokie)</i>
	Maileguak		2.373.296
	<b>Sarrerak guztira</b>		<b>12.206.765</b>
	<b>GASTU AIPAGARRIENAK</b>		
	Pertsonal gastuak		%4,5eko igoera
	Finantza zama		457.600
Inbertsioak		guztira 5.083.000	
<i>Hirigintza</i>			
Olasoko errotonda		1.100.000	
Altzola urbanizatzea		300.000	
Ermuaranbideko espaloia		270.000	
Altzairuzko barandak		294.000	
San Migel-Aiastiako ur-hartzea		300.192	
<i>Barne Saila</i>			
Zinegotzientzako gela		60.000	
Itzulpen sistema pleno aretoan		25.000	
Azokako igogailua		140.000	
<i>Kultura: kultur etxe</i> ko igogailua		1.400.000	
<i>Hezkuntza: Herri Eskola</i> ko estaldura		200.000	
<b>Irteerak guztira</b>		<b>11.834.838</b>	


## Aurrekontuak 2004 - 2008

KONPARAKETA	2004	2005	2006	2007	2008
Barne Saila	994.745,42	1.040.291,28	1.129.468,18	1.438.988,08	1.878.214,79
Hiri-segurtasuna	656.163,60	742.859,31	862.216,35	1.097.683,18	1.232.183,05
Hezkuntza	197.189,60	203.912,42	237.309,28	431.617,48	441.339,43
Kultura	1.539.256,55	1.732.161,41	1.762.080,90	1.872.099,71	2.144.088,32
Euskara	434.116,28	455.059,15	400.225,63	427.618,12	495.380,41
Ongizatea *	2.164.589,55	2.489.896,04	2.539.440,99	2.643.987,86	1.385.790
Hirigintza *	5.809.914,49	6.111.046,94	6.090.878,54	6.984.873,01	8.097.966,82
Ogasuna	1.252.439,97	1.060.316,02	1.040.577,36	1.014.522,55	1.053.607,89
Gazteria	66.990,83	67.988,93	281.892,29	304.639,92	378.090,45
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.115.406,29</b>	<b>13.903.531,50</b>	<b>14.344.089,52</b>	<b>16.216.029,91</b>	<b>17.106.661,16</b>

\* Mankomunitatearen gastuak Ongizateetik bideratzen ziren 2007ra arte. Orain, berri, Hirigintzak hartu ditu bere gain. Aurten 1.359.400 euro ordainduko zaizkio Mankomunitateari.



### 2008ko AURREKONTUAK



■ Barne Saila      ■ Kultura      ■ Hirigintza  
■ Hiri-segurtasuna      ■ Euskara      ■ Ogasuna  
■ Hezkuntza      ■ Ongizatea      ■ Gazteria

Aurrekontuotan ez dira bi inbertsio garrantzitsu agertzen: bata, Madala eta Lojantzi arteko kale zatiaren urbanizazioa (1.1132.000); eta bestea, Santa Ana, San Ignacio eta Antonio Arrillaga artekoa. Izan ere, 2007ko aurrekontua likidatzean geratzen den diruarekin finantzatuko dira.

Udal agintarien arabera, Elgoibarren egoera ekonomiko-finantzarioa oso saneatuta dago. Elgoibarko Udalaren zorpetze maila (%2,9) Gipuzkoako udaletako batez bestekoa (%6,7) baino baxuagoa da. Azken hamahiru urteetan Udalak ez du mailegurik hitzartu. Horrez gain, biztanleko 510 euro sartzen dira zerga bidez (Gipuzkoan batez beste 504).

Bestalde, gastu arrunta ez puzteko ahalegina egin dutela adierazi dute. Sarrera eta gastu guztiak kontuan hartuta, aurrekontuan 371.926 euroko irabazia aurreikusi dute. "Inbertsioak finantzatzeko balio izango du", udal gobernaren arabera.

Horrez gain, gastu ez finantzarioak sarrera ez finantzarioak baino handiagoak direnez, hiru urteko plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko du Udalak, legeak hala eskatzen duelako. Plan hori hiru hilabete baino lehen onartu beharko du Plenoak.



**ALFREDO ETXEBERRIA** Alkatea

«Datozen urteetan sortuko diren inbertsio berri handiei aurre egiteko ahalmena dagoela esan daiteke»

“Aurrekontu hau legegintzaldi honetako lehenengoa da. Aurretik konprometituta zeuden ekimenak jaso dira, eta baita beste berri batzuk ere. Aipatu beharra dago Udalbatza osatzen dugun partidu guztien ekarpenak kontuan hartu direla.

Elgoibarko Udalaren egoera ekonomiko-finantzario osasuntsua ikusita, datozen urteetan sortuko diren inbertsio berri handiei aurre egiteko ahalmena dagoela baieztatu daiteke. 2008an zehar definituko diren inbertsio estrategikoak (kirol instalazioak, Plaza txikia - Aita Agirre - Azoka eremua, aparkalekuak...) finantzatzeko iturriak bilatu beharko dira: beste erakundeak, autofinantzaketa, baliabide propioak edota zorra.

Udalbatza hau osatzen dugun partido politiko guztiok akordio bat hartzen dugu batetik, 2008ko aurrekontuak onartzeko, eta bestetik, Legegintzaldi Plan baten bidez hainbat proposamen aurrera eramaten lan egiteko. Proposamen horietako batzuk orain onartzen den aurrekontuan jasota daude, beste batzuk bere zuzkidura [suministroa] izango dute 2009, 2010 eta 2011ko aurrekontuetan. Eta beste batzuk behar den azterketa, eztabaida eta adostasunaren ondoren dagokien aurrekontuetan jasoko dira.

Gure kudeaketaren helburu nagusia Elgoibarko herritarrentzat ahalik eta bizi-kalitate onena bermatzea izango da”.



## Bilbao Express Bidaiak

**Bilbao Express Bidaiak agentzia lan egiteko pertsona bat behar da. Sektorean lan esperientzia izatea eta euskaraz hitzegitea ebaluatuko da.**

Bidali zure C.V.a [e1@viajesbilbaoexpress.com](mailto:e1@viajesbilbaoexpress.com) e-postara edo goizez deitu 943 74 39 12 (Pilar) telefonora.

**NEURE BURUA NIK NEUK GIDATZEKO PREST!**

[WWW.MONDRAGON.EDU/PREST](http://WWW.MONDRAGON.EDU/PREST)

**PREST**


**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**INAUTERIAK  
ARGAZKITAN**

***Datorren urtera arte,  
mozorroak armairura!***







# MOZORROLEHIAKETA

Giro **bikaina** inauterietako **mozorro** **lehiaketan!**

Elgoibarko Izarrako Aisialdi Taldeak antolatuta, Mozorro Lehiaketa izan zen zapatu gauean eta jai girorik ez zen falta izan. Mauxitxa Txarangak bildu zituen herritarrak eta denak dantzan Madalako parkera gerturatu ziren. Argiak, dekorazioa, musika, partaideak, ikusleak, aurkezleak... dena prest zegoen lehiaketa hasteko. Hotz egiten zuen, bai, baina ederki berotu zen gaua!

## Irabazleak

### TALDEKAKO SARIAK

- 1.- Finito de la Maala (275 euro)
- 2.- Los estraterrestres (175 euro)
- 3.- Los Cazafantasmas (125 euro)

### BANAKAKO SARIAK

- 1.- Chester zigarro paketea (125 euro)
- 2.- Pailazo malabaristak (75 euro)

### KOREOGRAFIA ONENA:

- 1.- Los estraterrestres (125 euro)

### AINARA LASA

Elgoibarko Izarrako Aisialdiko Zuzendaria

### "GUSTURA GELDITU GARA EMAITZAREKIN"

"Mozorro Lehiaketa antolatu dugun lehenengo aldia izan da. Gogotsu heldu diogu Kultura Sailak eskainitako erronkari. Azken batean, zapatu gaueko inauteri giroa alaitu eta koloreztatzeko urteroko ekitaldi bat indarberritu nahi izan dugu. Lehen Plaza Handian egiten zen lehiaketa eta estreinakoz, Madalan egin dugu aurten.

Hamazazpi talde eta bakarlarik parte hartu zuten: erleak, amona mantangorriak, super-heroiak, pailazoak, espetxeratuak, espontaneoak, zezenak eta bere koadrila, mamu hiltzaileak, eskaleak, dantzariak, maria galletak, mimoak, aurkezle pinpirinak... Gustura geratu gara lortutako emaitzarekin, parte hartzearekin. Bereziki parte hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, eurak izan zirelako protagonista".



## Gure berbak

### Aditza (4): NOR-NORI lehen

NOR-NORI adizkixen ahoskeriaren inguruko kontu bat aittatu nahi dot lehenbizi. Gaztien artian galdu egin da ixa erabat, baiña adifiekuen hizkeran NOR-NORI aditzetan -J- ixa ahoskatu ere ez da egitten, bokal artian gertatzen danian:

*Buruko miña etorri jata → etorri (j)ata / etorri (j)aku*

Soildu egitten da soiñu hori, ixa-ixa galtzeraiño.

Hona lehenaldiko formak:

- Neutruak: *Txanpona jausi jatan lurrera, jausi jakon, jausi jakun, jausi jatzun, jausi jatzuen, jausi jakuen.*

- Hikakuak (giz.): *Txanpona jausi jatian lurrera, jausi jaan hiri, jausi jakuan hari, jausi jakuan guri, jausi jakuen hareri.*

- Hikakuak (emak.): *Txanpona jausi jatanan lurrera, jausi janan hiri, jausi jakonan hari, jausi jakunan guri, jausi jakonen hareri.*

Lehenaldiko forma hauek oraiñaldixari lehenaldiko -N atzetik erantsitta osatzen dira, argi eta garbi. Normalak dira era honetako fenomenuak aditzian, ekonomizatzeraz jotzen da askotan, erreztera. Gaur egun horrek dira nagusi (J- debenak, bizkaierakuak). Hórrekin batera baiña, entzuten dira gipuzkerara hurbiltzen gaittuen forma batzuk, gitxixago erabilli arren dexente entzuten diranak: *zitzatan, zitzakon, zitzakun* eta halakuak.

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1942

Jesus Astigarragak ekarri digu aste honetako erretratu zaharra. Juan Kortajarena *Ondartza* eta Tomas Astigarraga *Kataolatza* nor baino nor lehiatu ziren egun honetan. Azpeitiko zezen plazan egin zuten apustua. Hiru zeregin izan zituzten: 125 kiloko harri biribila 25 aldiz altxatu zuten lehenengo, 72 pulgadako sei enbor pusketa moztu zituzten aizkorarekin ondoren eta, azkenik, sei kilometro egin zituzten korrika zezen plazari 60 buelta emanez. *Kataolatza* izan zen egun honetan irabazle. Urtebete lehenago Kortari irabazi zion apustu bera. Gogorra zen, benetan *Katalaotza* horrelako lanetan. Gaur egungo baldintzekin, punta-puntako kirolaria izango litzateke herri kiroletan.

Azpeitiko zezen plaza jendez gainezka egon zen egun hartan. 4.000 ikusle inguru bildu ziren. Horrelako ekintzek sekulako arrakasta izaten zuten orduan.

Erretratuan azaltzen da Tomas Astigarraga *Katalaotza* (+) bere entrenatzailearekin.



## I. URTEURRENA



2007ko otsailaren 2an hil zen, 81 urte zituela,  
**Luis Mari Zubiaurre Gurrutxagaren** oroimenez I. urteurreneko meza izango da, larunbata, otsailak 9, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiaren. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Abortatu egin duen emakume elgoibartar bat:

## “Emakume batek ez du edozein modutan hartuko abortatzeko erabakia, ziur egon”

**Abortua eta ika-mika eskutik joan ohi izan dira. Madrilen eta Bartzelonan itxi dituzten klinikak sortu du azken polemika. Datuak ere kezkatzeko modukoak dira. Euskal Autonomia Erkidegoan 2.383 egin ziren iaz eta askotan, informazio falta dela-eta. BARREnek hitz egin du duela 28 urte Londresera abortatzera joan zen elgoibartar batekin, Bilboko Euskalduna klinikako Roberto Lertxundi medikuarekin eta Eli Moreno sexologoarekin.**

Andoni Iturbe

**O**rain 51 urte ditu baina ez du sekula ahaztuko egun hura. “23 urte nituen eta umea izan berri nengoen. Gazteak ginen, ez geneukan bigarren ume bat edukitzeko dirurik eta haurdun gelditu nintzen berriro. Abortatzea erabaki genuen senarrak eta biok. Gaur egun hemen abortatzea zaila bada, garai hartan ezinezkoa zen”, adierazi du esperientzia gogor hartatik pasatu zen herritar batek. 28 urte pasatu dira baina oraindik ere ezinegona eta sufrimendua eragiten dio gogoratzeak. Informazioaren sasoi honetan, abortoak betiko mamuak sortzen ditu emakumearengan. “As-

kotan ez dakielako zer egin eta jakinda ere, ez dakigulako nora eta zeinengana jo. Oro har, prozesu horretatik pasatzen denak ez du inorekin konpartitu nahi eta bakardadean igarotzen du”, azaldu du Eli Moreno sexologoak.

Londresera joan zen garai hartan abortatzera izenik eman nahi ez duen elgoibartarrak. “Lehen ez zegoen edonoren esku. Ez nuen ingelesez hitz bakar bat ere egiten eta ez nuen ezer ulertzen. Senarrak bazekien zerbait, baina ezin izan zidan lagundu. Etxean ez nuen ezer ere esan, noski”, adierazi du. Askotan ames-



**ROBERTO LERTXUNDI**  
*Euskalduna Klinikako presidente eta medikua*

### “Zapatero beldurtu egin da eta hauteskunde programatik kendu egin du abortoaren gaia”

Roberto Lertxundi Euskalduna klinikako presidentea eta Espainiako Kontrazepzio Elkarteko kidea da. Ohituta dago bere kontsultan abortoaren gaia jorrazten. Itxi dituzten klinikak direla-eta, kezkatuta dago, are gehiago Zapateroren jarrera ikusita. “Espainiako Eliza katolikoaren eta PP-ko sektore integristen aurrean burua makurtu du. Beldurtu egin da eta hauteskunde programatik abortoaren auzia kendu du. Hala, abortoaren epearen inguruko legearen aurrean, erabaki du azalpenik ez ematea. Horri iruzurra deitzen zaio”, adierazi du.

Euskal Herriko aditu ezagunaren ustetuz, Estatu espainiarreko egoera larria da. “Batetik ez dago segurtasun juridikorik eta bestetik osasun publikoak ez du bere gain hartzen”, azaldu du. Europako Batasunean badaude epearen inguruko legediak indarrean. Holandan, esaterako, 24 astera arte abortutatu liteke. “Epeen inguruan eztabaida daiteke.

Baina kezkarriena da politikariek eztabaida hori alboratzea. Politikak gauzak hobera aldatzeko egon beharko luke eta ez alderantziz”, adierazi dio Lertxundi medikuak BARRENI.

gaiztoa izan zela iruditzen zaio, baina “benetekoa izan zen”.

### Nerabeak

EAEn abortatzen duten emakumezkoen artean, gehienek 20 eta 30 urte bitartean dituzte. Bereziki nerabeen artean hazi da abortu kopurua. Lertxundi medikuaren esanetan, ez dira osasun zentroetara joaten eta informazioa ez zaie egokiro iristen. Abortoen %40 etorkinei egiten zaie EAEn.

### Prebentzioa

Eli Morenok bat egiten du Lertxundi medikuarekin prebentzioaren garrantzian. Lertxundiren ustez, sexu heziketak euskal curriculumaren parte hartu behar luke. “Ez da irakasten. Gure garaian 20 edo 22 urte-

rekin izaten genituen lehen sexu harremanak eta oraingoak 15 urterekin hasten dira. Eta, noski, arrisku gehiago dute haurdunaldiak izateko”, adierazi du.

### Legeztatzea

“Abortua erabat legeztatu egin behar ko lukete. Emakumeak berak bakarrik daki umea izateko moduan dagoen ala ez. Eta ume hori hazteko gaitasunik ez badu, hobe da mundu honetara ez ekartzeara. Bizitza gogorra da eta ume bati ezin zaio horrelakorik egin. Emakume batek ez du edozein modutan hartuko abortatzeko erabakia, ziur egon”, esan du, 51 urteko emakume elgoibartarrak, duela 28 urte hartutako erabakia ezin ahaztuta.



### ELI MORENO

*Psikologo eta sexologoa*

“Abortatzea erabaki gogorra izaten da. Aukera bat da, baina ez da gogoz edo atseginez aukeratzen dena. Inork ez luke nahi izango halako egoera batetik pasatzea, momentu gogorra da, gertatu baino lehen, eta ondoren. Askotan ez dakigu zer egin eta jakinda ere, ez dakigu nora eta zeinengana jo. Oro har honetatik pasatzen denak ez du nahi inork jakiterik, beraz ez du konpartitzen eta bakardadean pasa behar duen trago bat izaten da. Eta ondoren gauza bera, zeinekin konpartitu? Bestalde, askotan erabakia hartzen den momenturako aste asko pasa dira eta zenbat eta beranduago egin orduan eta gogorrragoa da. Beraz egokiena prebentzioa egitea izango litzateke, halako egoeretara ez heltzeko. Nerabeekin gai hau lantzen denean, neska gehienek esaten dute beraiek erabaki beharko luketela haurdunaldiarekin jarraitzea ala etetea.

Mutilek esaten dute iritzia emateko aukera izan beharko luketela, baina argi dute neskaren aukera izan beharko lukeela. Kasu batzuk ezagutu ditut, eta guztiak oso gogorrak. Zorionez nire inguruan gertatu diren kasuetan familieren (gurasoen) laguntza izaten dute eta laguntza hori izugarria izan da. Bestalde, nahiz eta batzuetan jendeak abortatzea nahi duela esan, garrantzitsua da jendearekin lan egitea benetan desiatzen duten erabakia hartzeko, batzuetan inguruko presioak erabaki azkarrak hartzera bultzatzen baititu.


## Prebentzioa eta sexu heziketa beharrezkoak dira, adituen arabera

### DATUAK

- EAEn iaz 2.383 abortu egin ziren.
- 1985ean despenalizau zen abortua, Gonzalezen gobernuan.

### PROTESTAK

- Madrilgo eta Bartzelonako hainbat klinikaren itxieraren aurrean, abortua doakoa eta askea izateko eskatu dute.



# IBAN GONZALEZ

Txirrindularia

2008a urte erabakiorra izango da Iban Gonzalezentzat. 23 beteko ditu azaroan, afizionatuen denboraldia bukatu eta handik gutxira, eta orduan jakingo du profesioaletara pasatuko den edo txirrindularitza lagako duen. Bien bitartean, Sorluzeko proba irabazi ondoren, otsailaren 16an hasiko den Espainiako Kopan parte hartzeko gogotsu dago.

“Nire esku dago profesioaletara pasatzea”



**Noren esku dago profesioaletara pasatzeko erabakia?**

Nire esku. Maila ona erakutsi behar dut eta zortea eduki.

**Euskaltelen ala Orbean bukatzeko?**

Gauzak dauden moduan, Euskaltera pasatzea nahiko zaila izango litzateke.

**Itxaropenik, bai?**

Itxaropena beti dago. Nire txikitako ilusioa profesioaletara pasatzea da. Gutxienez probatzea.

**Goiz hasi zinen. Milaka kilometro, ehunka helmuga...**

Erraz esaten da, asteburuero lasterketak, egunero entrenatu beharra... Askok gustatzen zait, baina baijok ere izan ditut.

**Noiz?**

Handiena entrenamenduen antolakuntzagatik izan zen. Gauzak ez nituen ondo egin eta ez nuen maila ematen. Entrenamendua aldatu eta hobetzen hasi nintzen.

**Norbaiti eskaini zenion Sorluzeko garaipena?**

Eskaintzeko jende asko dago. Jende askok lagundu nau, familiakoek eta lagunek gehienbat. Askok poztu nintzen, aurreko urteetan ez nuelako behar bezalako mailarik erakutsi.

**Zure burua prestatu duzu txirrindularitza lagatzera heltzen bazara?**

Lehiatzeari lagako nioke, baina ez txirrinduan ibiltzeari. Lana bilatu beharko nuke. Goi mailako modulu bat ikasi nuen IMHn: produktu mekanikoen garapena. Ikasi ere etxetik gertu ikasi nuen, entrenamenduetarako erraztasun gehiago izateko.

**Zu bezala taldean jende gehiago egongo da, 22 urteren bueltan...**

Bai, elkar animatzen dugu. Denok dugu ilusioa pasatzeko; bat edo bi pasa daitezke aurten. Iaz bi pasatu ziren Orbea taldera. Hogeitik bik lortzea seinale ona da. Batzuetan pikea egoten da gure artean, baina azken batean lagunak gara.

**Dopin probak egiten dira afizionatuetan?**

Bai, baina gutxi, nahiko garesti ateratzen direlako. Irabazten duenari egiten zaio eta besteak zozketa bidez tokatzen zaionari.

**Fidagarriak dira?**

Bai, ez da arazorik egoten.

**Gogoratzen duzu lehen aldiz irabazi zenueneko?**

Lazkaon izan zen, kadeteetan. Garrantzi handiagoga ematen diot Elgoibarren kadeteetan lortutako bigarren garaipenari. Orduan gehiago gozatzen genuen; orain serioago hartzen dugu.

# Haundik partida erabakigarria izango du bihar, zapatua, Zalla liderraren aurka

Elgoibartarrak 7. postuan daude, 4. postutik hiru puntura

Lehenengo buelta bukatuta, zazpi-garren postuan dago Haundi taldea. Bigarren bueltan dagoeneko lau partida jokatu dira eta Pablo Turillas entrenatzailearen arabera, balantzea positiboa da, tarte gutxi baitago lehenengo sailkatuen artean. Izan ere laugarren postutik hiru puntura daude Zalla nagusi den sailkapenean. Hiru partida irabazi dituzte eta bakarra galdu.

Asteburu honetan liderraren aurka jokatuko dute. Irabaztekotan, lehenengo postutik gertuago egongo dira.

## Helburua, mailari eustea

Denboraldiari begira, helburua mailari eustea da baina "lehenengo postuei uko egin gabe". Partidak jokatu ahala, Haundiren benetako aukera argituko da.



Bajei dagokionez, ez dute nabarmentzeko ezer izan.

Pasa den astebukerako jokatutako partidetan, Elgoibarko taldeak oso fin aritu ziren.

Neskek Zarauzko taldea menderatu zuten. Gizonezkoen bi taldeek berriz, Santurtziren aurka 1 eta 0 irabazi zuten, eta Intxaurrendoren aurka bina geratu ziren.

## Tenis txapelketako finala jokatuko da bihar IMHn

40-15 tenis elkarteak antolatuta tenis txapelketa jokatu da bihar IMHko pistan. 34 lagunek hartu dute parte, estilo eta maila guztietakoak. Lagun giroa nagusitu da txapelketan eta parte hartzaileak pozik geratu dira, tenisean jokatzeke jende berria ezagutu dutelako. Finala 10:30ean jokatuko da eta Ander Oñederra eta Abel Hernandez dira finalistak.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Santurtzi 0 – Elgoibar 1

Elgoibar 3 – Zarautz 1 (neskak)

Elgoibar 2 – Intxaurreondo 2 (Neskek)

### ESKU PILOTA

Lagunak 22 – Antiguoko 18 (Kad. 2. maila)

Hernani 22 – Lagunak 17 (Nagusiak 1. maila)

### ARETO FUTBOLA

Goierrri 0 – Kenci 10 (Euskal liga)

### ESKUBALOAIA

TecniFuelle 26 – Aloña Mendi 22 (senior neskek)

Pneumax 28 – Escolapios 31 (Jub. mut.)

Tecnomeca 14 – Escolapios 35 (Sen. mut.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 9

15:45 Kenci – Euskal sofa UPV

### SASKIBALOAIA

Zapatua, 8

19:00 Gabi – Azkune

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 8

12:30 C.Astigarraga – Aloña Mendi B (Inf. fem.)

17:30 IMH – Urdabai (Kadete neskek)

### Domeka, 9

12:00 Cometel – Bera-bera (Jubenil neskek)

### ESKU PILOTA

Zapatua, 9 Udaberri txapelketa

19:00 Azkoitiko – Lagunak (Jubenil 1. maila)

19:15 Lagunak – Arrasateko (Kad. 2. maila)

22:00 Lagunak – Beloki (Nagusiak)

## ESKERTZA



2008ko otsailaren 1ean hil zen,  
*Ahizpa Jesusa Vicuña Aranaren* sendiak  
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Santa Agedako koroek baserri eta kaleak alaitu zituzten

Etxegiña taldeak eta Elgoibarko Izarrak jardun zuten kopia kantari ohitura zaharrari eutsiz

**O**hitura zaharrari eutsiz, eztarriz sano daudela erakutsi dute beste behin ere Etxegiña taldeko eta Elgoibarko Izarrako lagunek. Zapatuan kalez kale aritu ziren lehenengoak eta Santa Ageda bezperan, astelehenean, baserri baserri ibili ziren besteak. Emakume, gizon, zahar eta gazte, Santa Agedaren omenez bat eginda.

Santa Agedako argazki eta bideoak ikusteko: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



Bazkalostean irten ziren Elgoibarko Izarrakoak Plaza Handitik.



Gaztetxoek ere gogoz kantatu zituzten kopia zaharrak.



Baserritarrek zain egoten dira askotan.



Kaleak kantuz jantzi zituzten Etxegiña taldekoek.



51 baserri koplatu zituzten Elgoibarko Izarrakoek.



Etxegiñakoek 1.475 euro batu zituzten Caritasentzat.



# Glu-glu antzerki taldeak “Ezker-eskuma” antzezlanaren estreinatuko du gaur, barixakua, Herriko Antzokian

Domekan *Animaliak* umeentzako txotxongilo ikuskizuna izango da

**L**oli Astoreka eta Iñake Irastorza aktore ezagunak Herriko Antzokiko eskenatokian izango dira gaur, barixakua, *Ezker eskuma* izeneko antzezlanaren estreinatzen. Glu-glu taldearen emaldia 22:15ean hasiko da.

Aizpea Goenaga eta Ane Gabarainen zuzendaritzapean ekoiztutako lan honetan bi emakumeren eguneroko bizitza azaltzen da. Etxe bateko solairu berean bizi dira biak, ezker-eskuma. Emakume batek bestearekin zerikusirik ez badu ere, elkarren arteko konpainia eta laguntasuna ezinbestekoa izango da eguneko bizitzan aurrera egiteko.

Umorearen bidez bakardadeari, adiskidetasunari eta bizitzari buruzko gogoeta egin nahi du ordu eta laurdenero ikuskizun honek.



## Txotxongiloak

Domekan, berriz, *Animaliak* izeneko txotxongilo ikuskizuna eskainiko du El Retablo konpainiak Herriko Antzokian, 16:30etatik aurrera. Animalien munduari

buruz hainbat istorio azalduko dira bertan. Hirutik sei urtera arteko umeentzako pentsatua dago. Forma, kolore, soinu, erritmo eta mugimenduen lengoia erabiliko dute istorioak kontatzeko.

## Inazio Bereziartua Musika Eskolako bi neskek lehen postua lortu dute soinu zahar txapelketan



Soinu zahar txapelketa urtarrilaren 26an hasi zen eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako bi elgoibartarrek lortu zuten lehen postua bi sailetan. A sailean, 7tik 11 urtera bitartekoan, 24 soinu joletik onena Andrea Arregi elgoibartarra izan zen; Miren Astigarragak, berriz, 10. postua eskuratu zuen. B sailean, 11tik 15era bitartekoan, Iraitz Gonzalez izan zen nagusi hamalau partehartzaileraren artean; Nerea Badiola 5. izan zen; Itziar Aldalur, 7.; Leire Melgosa, 10; eta Nora Bastida, 11. Argazkian, iazko partehartzaile elgoibartarrak.

Bestalde, auresku txapelketak aurrera jarraitzen du. Sei dantzari parte hartzen ari dira B sailean (11-15 urte) eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako Aitor Asenjo 4. izan zen Azkoitian, eta Imanol Iturrino, 5. Legazpian, berriz, 3 gelditu zen Asenjo eta Iturrino 5. izan zen berriz. A sailean elgoibartarrik ez zuen parte hartu.

## Marcial Iranzoren olio-pintura erakusketa

Gaur, barixakua, zabalduko da Kultur etxean Marcial Iranzoren olio-pinturen erakusketa. Elgoibarraren bizi den artistaren margoak otsailaren 24ra arte izango dira ikusgai, 19:00etatik 21:00etara astegunetan eta 12:00etatik 14:00etara jai egunetan.

## Musika bandak kontzertua eskainiko du domekan

Sei pieza eskainiko ditu Udal Musika Bandak domekan, otsailaren 10ean: Texidorren *Amparito Roca* pasodoblea, Sostakovich-en *Waltz nº 2* jazz-suittea, Allmenden *China March* ekialdeko gaia, Gimenezen *Cinematografo Nacional* Zartzuela fantasia, Tormoren *Perfidia* cha-cha-cha, eta *La mascara del zorro* filmeko doinuak (Horner). Kontzertua Herriko Antzokian izango da eta eguerdiko 12etan hasiko da.

## LANA

### ESKAERA

- Neska, garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko, orduka edo egun osorako. ☎ **638 420 860**
- Neska, garbiketa lanerako (portalak, tabernak edo pisuak). ☎ **943 531 624**
- Mutila, haragitegian lan egiteko prest. ☎ **610 913 340**
- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketatarako prest. ☎ **686 127 137**
- Neska, goizetan lan egiteko prest. ☎ **665 726 288**
- Mutila, jardunaldi erdia edo osoa lan egiteko prest. ☎ **638 494 501**
- Neska nagusiak zaintzeko edo beste lanerako prest ☎ **690 134 485**
- Igeltsero edo margolari lanak egiteko mutila eskaintzen da. ☎ **664 606 102 / 605 207 081**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 530 407**
- Mutil makinista, lanerako prest. Gida baimena bada. ☎ **616 207 343**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **699 576 107**
- Mutila, haragitegian lan egiteko prest. ☎ **610 913 346**
- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **686 127 137**
- Neska, garbiketatarako edo ostatuan lan egiteko prest. ☎ **676 853 028**
- Neska, nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **943 530407**
- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanerako. ☎ **690 296 857**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **648 603 029**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **699 813 826**
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak ordu batzutan zaintzeko. ☎ **943 742201** (13:00-17:00 eta 20:30etik aurrera).
- Soldadura titulua duen peoia, lanerako prest. ☎ **661 225 149**
- Mutila, zerbitzari lan egiteko prest. Urtetako eskarmentua. ☎ **617 061 140**
- Emakumea, dendarri laguntzaile edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 53 02 43 / 648 505 256**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **616 230 814**
- Emakumea, arratsalde 16:00ak eta 19.00ak bitartean helduak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako prest. ☎ **639 240 038**

### ESKAITZA

- Esperientzia duen zerbitzari edo sukaldaria behar dugu. ☎ **696 912 902**
- Zerbitzariak behar dira astegun eta astebukaerako. ☎ **626 967 857**
- Zerbitzari bat behar da astebukaerako. Esperientzia. ☎ **943 74 82 48**
- Enpresa batek peoia behar du. Curriculuma bidali 92 posta-kutxara.
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. ☎ **606 034 057 / 620 578 462**
- Sukalde laguntzailea behar da. ☎ **943 121262**
- Eskarmentua duen sukaldaria behar da. ☎ **688 623 668 688 623 667**
- Ileapantzailea behar da jardunaldi erdirako. Esperientzia, beharrezkoa. ☎ **637 30 23 18**
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko ☎ **943 74 24 37**

## ETXEBIZITZAK

### SALMENTA

- Partikularra, erdigunean, 72 m<sup>2</sup>., prezioa jaitsita. ☎ **660 884 060**
- Etxea salgai San Roke auzoan, hiru logela, kalefakzioa, dena kanpoaldera begira. Komunak berriak. ☎ **696 301 694**
- Etxebizitza salgai Mendaron 91 m<sup>2</sup>, hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handiak eta kaldera balkoian. Garaje eta trastoarekin. 2004an jasotako etxea da. ☎ **652 757 240**
- Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, jakitokia, kalefakzioa, oso argitsua, bizitzera sarritzeko moduan. Prezio interesgarria. ☎ **615 769 650**
- Amañan, Eibarren, pisua salgai. Bi gela, egongela, sukaldea, bainua eta bi balkoi handi. Gasa eta igogailua. ☎ **618 135 429**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berria, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Altzariekin saltzen da. ☎ **628 115 677**
- 120 m<sup>2</sup> dituen pisua salgai Errosario kalean, PVC leihoak, berogailua, komun berria, hiru logela, eta bi egongela. Ganbara, aukeran. ☎ **943 741769**

### ALOKAIRUA

- Etxebizitza berri xamarra alokairuan, erdigunean, bi logela, igogailu eta garajearekin. ☎ **943 20 30 83**
- 95 m<sup>2</sup> lokala alokatzen da. Bi sarrera ditu, bata San Frantzisko kalean eta bestea Urruzuno kalean. ☎ **943 740 009**

## GARAJEAK

- Marradun garaje estalia salgai, ikastola ondoan. 7.500 euro. ☎ **943 743578 / 639 502127**
- Marradun garajea Juan Muguerza kalean (Pista beltza). 35 euro hilabetean. ☎ **616 111 603**
- Garaje itxia alokatzen da Muguerza kalean. ☎ **943 74 14 36**

## MOTORRA

- BMW 330i bat salgai. Aldaketa sekuentziala. ☎ **656 707 087**
- Ford Focus Guia 1.8 TDDI Berlina salgai. 2001. urtekoa. ☎ **630 151 231**
- Seat Ibiza 1,9 SDI. Bi ate, diesela, 18.000 kilometroekin, egoera ezin hobean. ☎ **699 017 973**
- 1000 km. eta 49 cc. dituen motorra saltzen da. 2007ko abuztuaren 5ean matrikulatua. Kaskoa, lapurreten aurkako giltzarrapoa, eta atzeko arkoia duen. ☎ **943 744 031 / 663 117 444** (17:00etatik aurrera)

## BESTELAKOAK

- Ordenagailuko mahai mugikorra salgai. Monitorea zeharka. Erretliak atera daitezke. ☎ **646 502 866**
- Etxeko altzariak, elektrogailuak eta oherako izarak, mantak, koltzak, edredoiak eta kortinak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Zero Sette trikita erosiko nuke. ☎ **655 742 836**
- Mutrikun ezarritako karabana salgai. Extra asko. ☎ **943 743 923 / 629 415 384**

## ABISUAK

- Erdigunean brillante txiki bat duen urre zurizko edo zilarrezko belarritako bat aurkitu da ikastola parean. Galdutuenak dei dezala telefono honetara ☎ **680 724 060**
- Txori bat aurkitu da bi uztai hanketan dituen, berde eta hori kolorekoa. ☎ **696 608 485**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04



• Zorionak, **Amaia**, 8 urte egiten dituzulako. Muxu handi bat zure familiaren partez.



• Zorionak, **Ion Ander**, hilaren 3an 9 urte egin zenituelako. Muxu asko familiaren partez.



• Zorionak, **Eneko**, hilaren 31an 8 urte egin zenituelako. Muxu asko familiaren eta amamaren partez.



• Zorionak, **Udane**, Iratxe, Yaiza, Adur eta famili osoaren partez.



• Zorionak, **Paul**, hilaren 12an 7 urte egingo dituzulako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Alejandro**, astebete atzeratu garenarren, zure anaien eta gurasoaren partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Kalet**, hilaren 6an urtebete egin zenuelako. Etxekoen eta bereziki Unax eta Beñaten partez.



• Zorionak, **Naroa**, bihar urtebete egingo duzulako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, 2 urte egiten dituzulako. Muxu handi bat zure familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Irati**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Egun ona pasa eta mila muxu aita eta amaren partez.



• Zorionak, Berrizko dantzari finenari.



• Ei, txo! piratatxo! Ez segi bila! Benetako altxorra zu zara! Zorionaaaak!!



• Zorionak, **Egoitz**, igandean 3 urte egingo dituzu eta, aitaxo eta amatxoren partez. Muxu handi bat



• Zorionak, **Unax**, 2 urte egin zenituelako. Familiaren eta bereziki Beñaten partez.



• Zorionak **Iker eta Mario**, hilaren 29an, bost urte egin zenituztelako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak **Nora eta Saray**, hilaren 6an eta 12an, hurrenez hurren, euren urtebetzea izango delako. Osaba, aitona-amona, guraso eta Ane, Eider eta Roy ahizpen partez.



• Zorionak **Nagore, Nerea eta Maidier**, eta eskerrik asko hain zintzoak izateagatik.

**OKINDEGIA**

10 igandea **BOLINTXO**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 8 Etxeberria (*Errosario*)
- 9 Yudego  
(\*Goizez Ibañez)
- 10 Ibañez
- 11 Garitaonaindia
- 12 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 13 Fernandez
- 14 Yudego
- 15 Zabaleta

**Escala**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84



**INFORMAZIO GEHIAGO:**

Egin klik [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)-en

**8 barixakua**

**19:00 Erakusketa**

Marcial Iranzoren margoak jarriko dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 24ra arte egongo da irekita.

**22:15 Antzerkia**

“Ezker eskuma” antzezanaren estreinaldia. Herriko Antzokian.

**9 zapatua**

**10:00 Tenis Txapelketako finala**

“40-15” Elkarteak antolatuta, Tenis Txapelketako finala jokatu dute Ander Oñederra eta Abel Hernandezek. IMHko pistan.

**13:00 Motxaila Eguna**

Motxaila Eguna ospatuko dute Mendaron. Musika, ipuin kontalariak, poesia, bertsolariak... izango dira.

**21:00 Sagardotegia gaztetxean**

Gazte Asanbladak eta Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, afaria izango da Gaztetxean. Tiketak Txuri-Beltz tabernan erosi daitezke.

**10 domeka**

**10:00 Mendi irteera**

Elgoibarko ikastolak antolatuta Kalamua mendira egingo dute irteera.

**12:30 Musika Bandaren kontzertua**

Herriko Antzokian. Egitaraua:

1. *Amparito Roca* (pasodoblea, J. Texidor)
2. *Waltz N°2* (jazz-suite, D. Sostakovich)
3. *China March* (orientala, R. Allmend)
4. *Cinematografo nacional* (zarzuela, G. gi-menez)
5. *Perfidia* (txa-txa-txa, A. Tormo)
6. *La mascara del zorro* (pelikulako doinuak, J. Horner)

**16:30 Antzerkia**

“Animaliak” antzezlana, Herriko Antzokian.

**13 eguaztena**

**18:30 Gurasoen formaziorako jardunaldiak**

Herri Eskola eta Institutuko Gurasoen Elkarteak antolatuta, “Adimen emozionala” izeneko jardunaldiak izango dira. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**Lanbroa**

**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

**Idama**

Urtarrileko irabazlea:  
**JOSUNE  
LAREINA**

Otsaileko saria:  
**ILEKO  
PLANTXAK**

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

# 14 *eguna*

## 19:00 Antzerki tailerra

Taudada Antzerki Taldearen eskutik, antzerki tailerra izango da.

Parte hartzeko: 943743655



### «La sombra del cazador»

9, zapatua: 19:00/22:15  
10, domeka: 19:00/22:15  
11, astelehena: 21:30

### «El bosque de luto» (Z.K.)

14, eguna: 21:30

#### «La sombra del cazador»

Zuzendaria: Richard Shepard  
Aktoreak: Richard Gere, Terrence Howard

Simon Hunt kazetaria eta Duck kamera-gizona munduko gerra gogorrenetan lan egindakoak dira. Baina egun batean, Bosniako herri txiki batean, dena aldatuko da eurentzat.

## Gure gomendioa

### «Ezker eskuma»

Gaur, barixakua, 22:15ean Herriko Antzokian

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, «Ezker eskuma» antzezlanak ikusteko aukera izango dugu gaur gauean Herriko Antzokian. Glu-Glu Produzioak taldeak eginiko azken lana da eta Elgoibarren izango da estreinaldia.

Rosa eta Sara dira protagonistak. Bakoitza bere etxean bizi da, bere munduan eta euren egunerokotasunak dituen arazoekin borrokan. Biak solairu berean bizi dira, ezker-eskuma. Bi emakume horien istorioa kontatzen da antzezlanean.



## ESKERTZA



2008ko otsailaren 2an hil zen, *Gregoria Gorostidi Uncetabarrenechearen* sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA



2008ko urtarrilaren 28an hil zen, 51 urte zituela, *Jose Luis Ansola Arrietaren* oroimenez meza izango da, igandean, otsailak 10, goizeko 11:30etan San Migeleko elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



## Argazkiak

# San Juan Bosco Eguna

Hotz egin arren, giroa bero zegoen San Juan Bosco Egunean. Irakasleak goizean goiz hasi ziren lehian eta eguerdi aldera arte aritu ziren lehian. Arratsaldean parranda giroa nagusitu zen eta luze iraun zuen jaiak.

Mutilak ere trebeak dira sukaldean.



Bolante eta guzti oker jaitsi zen Euskohetea.



Ummmm... ederra atera zen patata tortila!



Beckham-en parekoak ikusi genituen Kiroldegian.



Bazterra jo arren, beharaino iritsi ziren!



BARREN astekarirako  
**BANATZAILEAK BEHAR DIRA**

16 urtetik gorakoak

BARREN Astekaria ♦ Nafarroa Plaza, 2 ♦ 20870 ELGOIBAR  
Informazio gehiago: Tel.: 943 74 41 12 ♦ E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
www.fjlodoso.euskalnet.net

### Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Zaldia

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Aramar

Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea  
MENDARO  
☎ 943 03 35 35/660 791 723

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.es  
www.excavacioneslekunberri.com



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 22 58



## Igeltseritza

### Antonio Markez

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia  
☎ 943 74 30 94



*Etorri gu bixitatzera*

# *Zubia*

*Jaletxea*

- *Dastatzeko menua*
- *Eguneko menua*
- *Pintxoak*



*Bainuetxeko Zumardia kalea, 2 behea*  
*20860 ALTZOLA*  
*Tel.: 943 74 45 78*